



BOOKTEGI

maria

GARAZI ALBIZUA

Elkarri
Irakurriz



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GARAZI ALBIZUA

maria

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Egunsentiko 5:30 dira. Mariak eskuak sabelean paratu ditu, gozo, laztan biribila da harena, zilbor goialdean hasita, erlojuen noranzkoa jarraituz sortutako *Uroboroa*. Bizkotxo oratzean ere, sugea eratzen du, ez hasierarik ezta amaierarik ere ez duen ore biribila, eskuekin hartu eta zanpatu, berriro sortu, berriro zanpatu. Birramamaren errezeta da. Hura ere Maria.

Ostatuaren sukaldean, aldarea sortu dute, birramamarena da argazkirik zaharrena, nahiz eta ez izan ostatua gobernatu duen andre zaharrena. Haren ondotik egon baitziren beste bi Maria; gainera, birramama nahiko gazte zendu zen. Azoka egunean. Orduan, azokara soroko salgaiak eramateaz gain, birramamak artilezko oihalak ehundu eta eramaten zituen. Herriko jostun trebeena zen. Mariari bereziki gustatzen zaio zelan hil zen, herioa bere horretan ez zaio asko interesatzen, baina hark izandako heriotza izan zuen printzesa ipuinetik.

Amak ez daki asko familiaren kondairaz, ez dio kontatu behintzat, nahiko emakume isila da, gutxitan dute elkarrizketarako tarteak. Gainera, ez zuen bere amama ezagutu. Ordea, birramamaren alabak, Mariaren amamak, ipuin fantastikoa kontatu zion:

gaua zen, azoka eguna luzea izan zen abuztuko, ama heldu behar zen ostatura berandutu gabe, izan ere, afaria prestatu behar zuen, hiru gizon baitzituen bezero. Eta ez hori bakarrik, harietako bat urrutiko lurralde batetik heldutakoa zen, itsasoaren beste aldetik, mendi garaien artean garaienetan bizitakoa, Maria ikusi eta harekin berehala maitemindutakoa. Eta Maria bezeroarekin. Kontua da, maitasunak barik beste zerbaitek estutzen zuela bikotea: hain zuzen, birraitonak maitaleak harrapatu zituen musuka iskin batean. Suminduta, dragoi baten antzera bikotearen kontra egin zuen; eta, urrutiko gizon mardula birraitonaren kontra borrokatu zen. Kolpe handia eman zion buruan, dragoia instant batean akabatuz. Gorpua gordetzeak, beraz, lotzen zituen maitaleak.

Birramama Maria, printzesako ipuinen antzera, heroiarekin joatekotan egon zen; ordea, alaba, ostatua, hiltzaile batekin ihes egiteak... gehiegizkoa iruditu zitzaion, nonbait. Horregatik, azoka egun haren ostean, gau aldean, afaria prestatu eta zerbitzatu ondotik, gizon harroa behean zain zuela, alaba oheratu, ostatua zaintzeko agindu eta logelara igo zen. Haren senarrak oparitutako edredoa urratu zuen eta soka bat ehundu. Urkatu aurretik,

betazalak orratz bero batekin atera zituen, heldu behar zen herioari aurrez aurre begiratzeko, ez zituen begirik itxiko, sekula ez.

Ipuina bezala ez da txarra, pentsatu du Mariak bizkotxo oratu artean. Esango luke baduela egiatik zerbait.

Birramamaren aurreko bi Mariez ez daki askoz gehiago, bat basoan hil zen, otso batek erasota:

otso bakartia zen, taldetik kaleratutakoa. -Taldearen kontua ez da kontu makala. Talde batek laguntzen du, ahalduntzen du, sororitatea indartzen du, baina hori amua ere izan daiteke. Talde batek, esaterako, esan dezake, goazen emakume hori bortxatzera, eta taldearen izenean, anaitasunez ase, pentsatu barik, dela pertsona dela garbiketa etniko bat aurrera eramanez, ordea, orain hizpide dugun otsoa kanporatu zuen taldea ez zen mota horretakoa, otso saldo sanoa zen, animaliek berezkoa duten izaerarekin bat, lagunaren artean emandako soziedadea. Otso bakarti horrek, halere, bazuen bestelako zerbait: lau hanketan barik bitan ibiltzeko gogo sutsua, eta ilargiari uluka egon beharrean, emakume gazteak –edo ez hain gazteak– zelatzeko grina. Jatekoa ehizatu beharrean, desiratutakoa harrapatzen zuen. Eta hala, Maria bat. Basora egur bila joanda zen arbasoa, berak ezagutzen zuen bidezidorra hartu zuen, xede bakarra ostatua bero mantentzea zuela. Buelako bidean, beste norbait topatu zuen parez pare bidean, nor eta koadrodun alkandora jantzitako bi hanketako otso egurgilea. Gizotsoak lagunduko zuela agindu zion, egur batzuk hartu eta bidexka batetik jarraitzeko. Mariak ez zion kasurik egin, ondo ezagutzen baitzuen ostatu ondoko basoa. Kontua da, azkenean, tipoak egurrak alde batera bota eta Maria bazkatu zuela.

Egun horretako bezeroek ziurrenik hotza pasako zuten, akaso Mariaren senarrak berotuko zuen ostatua, baina ez da batere ziurra. Ostatuak Mariak behar ditu aurrera egiteko, biderik ez galtzeko. *Uroboroa* mantentzeko.

Erretratu gabeko bigarren Maria aitzindaria izan zen:

ostatuaren lehen Mariak bizitza luzea izan zuen, bizitza luzea orduko garaiak kontuan hartuta. Mendeku istorioa izan zen harena, benetan aparta: Maria horren amak ez zuen ostaturik gidatu, egin behar zuen, baina herioa gazteegi heldu zitzaion, umeaz erditu eta egunetara zendu zen. Senarra bakarrik utzi zuen erditzearen arazo batzuegatik, omen; ez zen emaginik heldu eta gizon koitaduak arbolen eta egurren inguruan oso jarduna izanagatik, ez zuen tutik ere ulertzen sendabelarren inguruan, ezta septizemiaz ere. Beraz, Maria hil egin zen eta alargun utzi zuen morroia. Oso alargun egia esan. *Alargunegia*, akaso; horregatik, gizona ezkondu egin zen emaztea hil eta pare bat astera. Familia sendotze aldera edo zabaltze aldera edota emakume jakitun asko batze aldera, batek daki, aukeratu zuen bi alaba gazte zituen emakume alarguna ezkontzarako. Horrela, ostatua elikatu zuen ahots leunez, esku gogorrez, eta lanean kementsu ibiltzen ziren andreez. Baina euretako bakarra zen Maria. Ostatuaren aperitifia. Beraz, behin,- bizkotxoaren oreka zanpatzen dabilela, Mariak imajinatzen du, ekaitzak gogor astindu zuen egun batean-, gizon gazte bat, zaldi txuri eder baten gainean heldu zen ostatura, gaua pasatzeko asmoz. Prestatu zioten logela bat, atera zioten jatekoa, eta gizona bapo-bapo geratu zenean, azaldu zuen, berez, lur horietako jauntxoa zela, eta *ius primae noctis* eskubidea zuela herriko emakume gazte guztien gainean. Lehen gauerako Maria ez zen ahizpa nagusia aukeratu zuen; minez jota alde egin zuen jauntxoaren logelatik hurrengo goizean neskatoak. Bigarren gauerako, ahizpa ertaina begiz jo zuen zaldunak, ahizpa nagusia eta ama saiatu ziren modu batean edo bestean neskato koitadua laguntzen, baina ez zuten biderik asmatu eta hark ere minaren minaz alde egin zuen hirugarren eguneko egunsentian. Gau hartarako zerbait egin behar zuten, izan ere, gure Maria haurra zen, eta halere, jauntxoak beretzat eskatu zuen. Afarirako zerbitzatu behar zioten ardoa pozoitu zuten -jo, ze tipikoa emakumea eta pozoia, izan daiteke zaintzagatik, azken batean, belar batetik edo bestetik behar baino gehiago erabiliz gero, ez daki ze gaixotasun osatzeko, edota hiltzear dagoen pertsona, jada, gainetik kentzeko, zein borroka fisiko batean garaile ateratzeko aukerarik ez dagoenerako, pozoia eta emakumea ahizpatu dira, lurrina eta usaina nola, pentsatu du Mariak. Halere, Mariak nahiago luke beste zerbait egin izan balute, baina ipuinak, istorioak edo familiaren mitologiak pozoia erabili

zutela dio, beraz, horrekin aurrera. Kate guztiak ezin dira apurtu. Dena izan da-. Jauntxoak seko zorabiatua igo zituen logelarainoko eskailerak, eskutik, estu helduta, arrastaka eramaten zuela Maria txikia. Neskatoa ohera bota zuen eta arropak kentzen saiatu. Zapata bakarra kendu zionerako, pozoiak eragin eta jauntxoarenak egin zuen. Ondoren, gertatu zen betikoa: aitik ihes egin zuen eta ostatua Mariarekin geratu zen, berarekin bakarrik. Beraz, gainerako emakume gaizto guztiek alde egin behar izan zuten basoan barrena. Sorgintzat hartuta. Azken batean, gizona arrazoirik gabe erail zuten, izan ere, bortxaketa, berez, ez zen bortxaketa bat, araua baizik. Eta, gainera, pozik egon beharko lukete, haiek ziren bezalako emakume ziztrin, zatar eta itsusiak izanda ere, aukeratuak izan zirelako. Beraz, basora.

Ziurrenik horrela izango zen, egia esan ez zaizkio heldu istorioen zehaztapenak, eta amak ez dio horrekin laguntzen, ezta beste gauza askorekin ere, hain da isila, hain ibiltzen da beti logelan sartuta-. Detaileak belaunaldien arteko nagiak jan egin ditu. Amamaren ezizena Nagia izan zen. Mariak orea ikusi eta zati bat bestea baino gehiago zanpatu du, amamaren omenez.

Nagia ez da emakumeen berezko ezaugarria –poeta izateko gizona izan behar omen da, ingurua behatzeko aski denbora duena, alferkeria barik hausnarketa egiteko gai dena, emakumea, akaso, nobelista. Horrelako zerbait irakurri zion inoiz Mariak Virginia Woolfi, gainera, alferra izateko, aukera egon behar da. Eta debekatuta dago. Hau da, esaldi asko eta istorio asko daude nagiaaren kontrakoak. Deabruaren tentaziotako bat dela alferkeria, sugeen mezuak entzun besteelakoa. *Oroburua* bezala. Amama ez zen berez alfer-alferra, jakin-min handiko neskatoa baizik. Kontua da, beste Maria asko legez, gazteegi hartu zuela oinordetzan ostatua. Eskuak txiki izanagatik belarra moztu beharrean, marrubiak hartzen zituen gosaltzeko. Oinak baldar izanagatik basoko bide gogorrak egur bila zeharkatu beharrean, ibaian bainatzen zen fresko-fresko. Eta ilea. A, ilea. Luzea eta eder ederra. Aski izan zuen ile mataza ondoko artzaina maitemintzeko. Artzaina gizon heldua zen, beraz, beso eta hanka luzeak zituen, ile gutxi buruan eta jolasteko gogo handia. Beharbada, ostatuak Maria bakarrik nahi zuelako ez zituen gizonak ordu gehiegi sartu lanean. Ordea, artzainak Maria zuen gogoko, goizeko, arratsaldeko eta gaueko ordu guzti-guztietan. Herrian ezaguna

zen, tipo bihotz-behera eta eskuzabala, hain zen ona, ezen lagunak ere gonbidatzen zituen jolasetara. Usozalea zen lagun haietako bat eta artzainak semetzat jasotako gizon gaztea bigarren lagun-mina. Kontua da, Mariak ezin izan zuela tripa ezkutatu. Herrian zabaldu zen misterioa. Hiru gizon eta emakume bat, norena ote zen sabelean ernatzen ari zen haurra? Usozalearena, aitarena, semearena, agian? Nola zitekeen posible?

Hizka-mizkak baretzeko, nonbait, gizonek zozketa bat egin zuten jakiteko nori zegokion Mariarekin ezkontzea eta ostatuan bizitzea. Umea jaio zenerako, ostatua herrira zabalduta zegoen, handik eta hemendik heltzen ziren bezeroak ohe bila, beroa zein hotza. Mariak denak zerbitzatzen zituen, umea bezeroekin olgetan egoten zen bitartean, urrunetik ekarritako opariekin jolasean. Bigarrenez haurdun lotu zenean, alde egin zuen semeak, beharbada, jakinda, sabelean Maria bat zetorrela. Lagun saldo izugarria egina zuenez ondoko herrietan, mundua ezagutzeko aukera ez zuen galdu. -Amak ez zuen osaba ezagutu, makro jai batean, gaindosia jota hil zenerako, familiarekin harremana hautsita zuen, eta, halere, ezbeharrak, zein elikadura-intoxikazioak, aita zurrupatu zuen, eta gutxira zendu zen bera ere, beraz, bi Mariak geratu ziren ostatuan: amama eta ama; lekua zaintzen, haren gosea asez.

Orea zanpatu eta kolpatu du Mariak, ama isilarekin gogoratuta.

Amak berehala jakin zuen Maria bat zuela barruan. Horrela esaten zion, Maria neskato txikia zenean:

berezkoa zuen ahots kantariaz, ostatua garbitu bitartean, harrotasunez mintzatzen zen. Beti izango dugu non babestu, zioen. Beti izango dugu beharra, zioen. Denborak berak betirakotasuna galdu du, ordea, Mariaren aurrean. Hori aitaren esaldia da. Betirakotasunarena. Oso gustuko du aitak literatura edota filosofia. Ostatuaren historian lehen aldiz, gela bat bereiztu zen bezeroen geletatik. Aitaren liburutegia jarri zuten bertan. Han ematen ditu eguneko ordu guztiak. Printze bat nola jauregitxoan gotortua, pizti giltzapetua, ordea, iruditzen zaio alabari. Amak, hortaz, aita eta kanpoaldea partekatu behar izan zituen denbora batez. Ibiltzen zen ostatuko bezeroekin, herrira joaten zen ogi bila,

auzokideekin beti atsegin, galdetuz hau eta bestea, beti eder, beti lirain, beti polit, beti irribarretsu, opilak erosi bitartean. Maria Ederra esaten zioten herrian. Hain gutxitan ikusten zuten aita kalean, ezkongai harroa hazi zitzaiola Maria Ederrari. Baina aita bazegoen. Bere gela handian, liburuz jositako palaziotxoan. Batek daki nola -akaso Mariak zerbait esanda, haurra zen garai hartan eta aita miresten zuen, nahiz eta gizonak nahiko petral jokatu alabarekin-, emaztearen maiteminduaren berri izan zuen aitak. Emazteari debekatu egin zion herrira joatea, Maria txikia bidaltzen zuten erosketetara. Ostatuko bezeroak ere atseginegiak otu zitzaizkion senarrari eta arin eragotzi zion Mariari eurekin hitz egitea, alabak egin zezakeen hori baita ere. Mariak, beraz, garbitu, sukaldean janaria prestatu, senarra miretsi, senarra elikatu, senarra miretsi, senarra apaindu, senarraren hitz gutxi eta lehorrak maitatu, senarra miretsi, senarrekin lotu zen betiko. Alabak, ostera, ostatua elikatu, ofizioa ikasi, ostatua ulertu, ostatua elikatu, oinordetzan jasotako beharra hartu, ostatua mantendu, ostatua elikatu, ostatuan egon beharko du. Maria bat da, azken batean.

Mariak Marien argazkiak ikusi ditu sukaldeko aldarean. Posca errotuladore bat hartu eta lehen eta bigarren Marien marrazkiak egin ditu: aitzindaria ardi batekin marraztu du, bigarrena aizkora batekin. Birramamari orratz bat gehitu dio argazkiaren markoari, amamaren kasuan, zapataren lokarriarekin egin dio begizta bat iltzea apainduz, amaren kasurako, marraztu dio petalo gabeko arrosa bat. Horman, beretzat propio zati bat dago, beste Maria baten erretratua ipintzeko toki garbia da:

horretarako, ispilu bat hartuko du eta Artemisia Gentileschi nola egingo du erretratua. Ilustratzaile ona da, ispiluari begira marraztuko da, ispiluari galdetuko dio nor den bera, ispiluko islak irribarre egingo dio, Maria bat dela esango dio; gainera, aholkatuko dio lozorroan dauden gurasoei otordu gozoa prestatzeko, sagar egosia egin dezake, basora joan daiteke bila, berak ezagutzen du bidexka. Sagarrondo ederrenetik are sagar ederragoa hartzeko gomendatuko dio. Gainera, bidean, jaso ditzake belarrak, berak oso ondo ezagutzen du lekuko flora, sukaldeko tiraderan agertzen dira hainbat errezeta, hainbat sendabelar, urteetan zehar gordetako informazioa almanaka zahar batean gordeta. Ispilua

hartu, beraz, eta islari galdetu dio ea beste Mariaren bat gertu dagoen, baietz esan dio, asko direla, herrian badirela batzuk, unibertsitatean beste batzuk, eta ez ahazteko lagunak. Nahikotxo dira Maria. Irria zabaldu zaio, pentsatu du, gauean, beharra bukatzean, aukera izango duela tabernara joateko, lagunekin topa egiteko. Emango dute kontzertu bat, opor garaietan beti egoten da turistak alaitzeko mugidaren bat. Basora sartu da irribarretsu, ostatuko atzeko atetik atera ostean, ez du bezeroekin gurutzatu nahi, ez omen daude oso kontent, antza. Irakurri ditu *tripadvisor*ren iritziak, izar bat bakarrik, letra larriz idatzita hainbat gauza. Buelta ere isilpean egin du, badaezpada, berehala, eguraldi apartak aterako ditu hortik eta hemendik heldutako heroi, printze eta artzainak. Euren metalezko zaldi ederretan sartu eta behatoki batera zein bestera igoko dira. Aparkatu eta basoan erdi galduta, markatutako bideak jarraiki, profilean ipintzeko hainbat argazki egingo dituzte. Ondoren, mugikorrari non bazkaldu galdetu eta ibaia ondoko jatetxe zikinera joango dira, Coca-colak apaindutako menu turistikoak bazkaltzera, gazpatxo, paella eta katxopoen irudi distiratsuak gidatuta.

Baina lehenengo, gosaldu beharko dute.

Sukaldean, orea handitu egin da, puztu. Prest da labean sartzeko. Suge itxura du, baina ez du buztanik jaten, izan ere, zatitxo bat moztu dio, aitari zerbitzatzeko lehenbizi, zati horri bakarrik glass azukrea bota dio. Izan ere, amak ez du azukrerik jaten. Zera, eleberri hartan bezalaxe, Shirley Jacksonen *We have always live in the castle*, kasu hartan, ahizpa txikia zen azukrea gogoko ez zuen familiako senide bakarra eta hilketaz libratu zen bakarra. Hauts zuriak aitarentzat, beraz.

Bai bitxia, askotan, errealitateak irris egin dio. Ipuinak zein kondaira familiarak bezala. Hau eta bestea nahastuta, zaila da jakitea zelan izan zen zer. Nor izan zen hori. Edo zergatik emango dion liburutegi horretan giltzapetuta bizi den basapiztiari bihotzekoa. Bihotzeko forma izango baitu biharkoak. Bezeroei ezer larririk ez, akaso, bi-hiru egunetako kakeria, gehi hotzikarak, gehi *tripadvisor*ren iritzi txar gehiago, oso txarrak, azkeneko asteko

garbiketa egitea ere nonbaiten ahaztu duelako. Are okerrago, ostatuak dituen baino logela gehiago saldu ditu. Eta leku asko dago oporretan joateko. Bi kilometro eskasetara badira Mariarik gabeko ostatuak.

Zilbor gainean hasita eta erlojuen orratzak jarraituz, laztan beroa egin dio sabelari, ekinean jarri aurretik, atzoko afariaren hondarrak bapo-bapo hartu ondoren, sentitutako erremina baretzeko asmoz. Gasak ote? Antisorgailuek ez diote on egiten, hori ere beste mugida bat da. Zergatik hartu behar du berak erantzukizun osoa? Biba kondoia.

Dena den, amari eskatuko dio medikura laguntzeko, eguna aprobeztatuko dute.

—Total, ama; aita lokartu egin da. Hobeto ez esnatzea! Gainera, bazkaldu ostean, joan gaitezke zinemara, aspaldi ez dugu pelikularik ikusi, eta hain—hain gogoko dut fikzioa!